

NEŠKA ETA CHORIYA



Churi-urdiñen apaindutako
eche alanbrezko bat zan,
non alpiste ta ur garbiyaren
faltarik beñere etzan:

Neskak kayola guztiz kontentu
jarri du betiko gisan
leyoz kanpotik, iltze batian
chinchilik edukiezan,
eta jostatzen zan bitartian
aize piskabat arzezan.

Eche aurreko baratzatikan
aize iparcho biguna,
ezkutatuaz osto tartian
emanaz laztan leguna,
ala guztizko alaitasunez
pasatzen zuben eguna.

Eguzkiyare izanik beti
chori guziyen laguna
pozik jaisten zan epeldutzera
galai luma ori duna.

Eskuchuakiñ agur egiñ da
kontuz leyuak ichirik
utziyaz eche churi-urdiña
bere iltzian chinchilik,
pirripipika laister asi zan

len zeguena išilik;
ariñ chochera goitituaz ta
chochetik ariñ jachirik,
pareta-chori lotsagabiak
choraturikan utzirik.

Illunabarra igarotu ta
eguzki churi epela,
oyeratu zan arratsaldeko
bostak entzun ta berela.

Ontan illunak chori chikiya
ikaratutzen zubela,
triste *piaka* kristaletatik
ume bat balitz bezela,
abiyatu zan echeko danak
oartu nai zitubela.

Bakardadian gelditurikan
chori oriya bildurrez,
«ziyon—«Berandu sartzen mute
kejaturikan negarrez. [gaur»
Zeru zabala estalitutzen
zizuan argi izarrez;
goi eder artan laño churi bat
etzan ikusitzen errez....
eta iparra jabeturikan
gallendutzen zan indarrez.

Aiñ oparuan goi garbiyura
 estalirik lora argiz,
 ziruriyela zeru osuak
 egiten zubela dizdiz,
 eztakit nongo kanpanak ontan
 jo du bederatzai aldiz
 eta gaisuak beti *piaka*
 ziyon guztizko pen aundiz
 —«Ai! neri kontu egiten diran
 neška etorriko balitz».

Eroritzen zan ekach¹ che-chia;
 otzak ormatuba jela;
 aize izoztu ikaratiya
 beraren lagun zutela.

Ala chochetik chochera eziñ
 saltatu lenaz bezela,
 sankocho miak otzak botiak
 non zeuzkan etzekiyela
 eta gaisua etsimendua
 laister ill biar zubela.

Sanko mearraz eziñ eldurik
 echeke alanbriari,
 arkitutzen zan aiñ estutuba,
 aiñ larrituba, aiñ eri;
 chorabiyoka samintasunez
 laguntza eske zan ari
 ziruriyela *pia piaka*
 deitzen ziyola amari..
 chit mingarritzko deya zan baña
 etzan amarik ageri.

Asnas gaberik iya illotza
 kanpo illunbe tristian,
 leyo ichiyak, laguntza gabe

eta alako trantzian,
 buru polita gorde du bere
 egal lumaren tartian,
 bola ori bat balitz bezela
 bilduba luma berian,
 kayol chokuan ezkutatu zan.
 norbait oroitu artian.

Gero ja! gero argiturikan
 soseguz egun berriya,
 eguzkiyaren ari suzkuak
 emanaz argi biziya,
 gozoz bete du errekachua,
 baserri churi churiya,
 saroi, baratza, baso ozpela,
 alaiturikan guziya..
 jbaña mugira gabe zeguan
 kayol chokuan choriya!

Zortziyak ziran kristaletara
 neska zanian azaldu,
 zeñek artian begi urdiñak
 eziñ zituben zabaldu;
 šošo goiztarren chistu biziya
 etziyon lorikan galdu,
 zerubak ere mandataririk
 etziyolako bigaldu,
 amets gozuan choriyen gana
 ustez nai zuben egaldu.¹

Zerbait utsegiñ balu bezela
 choriyen echera lotsaz,
 allegatu ta bizkocho puska
 laister jarri diyo pozaz.

Aingeruchuak egite ura
 nonbait emanikan ontzaz:

(1) Escarcha.

(2) Volar.

begi urdiñak zabaldu eta
 nayera aundiko bozaz
 —ziyon—«¡Gaiñua! nik ditut kul-
 aztu naizelako zutaz». [pak

Neska *piaka* asi zitzayon
 jarririk kayol onduan,
 lenaz choriyak aingeruari
 kantatzen ziyon moduan;
 bañan alare pozkidatua
 etzan egon luzaruan:
 nola choriya mugida gabe
 kayol chokuan zeguan,
 iruri char bat pentsamentura
 sartu zitzayon orduan.

Gau illunian aize bunbadak
 turmoi orruak bezela,
 ontzi charreko itsas gizona

dardaratutzen dubela,
 ala izuaz iriki ziyon
 ate chikiya berela
 eta illotzik artu ta ziyon
 negar zizpiraz onela.
 —«¡Amacho! ¡ilda, ilda choriya!»
 malkuak zedizkiyela.

Pareta chori zelatariyak
 neskari burla moduan,
 eche aurreko tellatutikan
 onela piatzen zuan.
 «Biskocho mingañ guchiyagota
 geyago bere kontuan
 egon baziña, laja gabarik
 aztuta leyo z kanpuan,
 zure laguncho maitagarriya
 izotzak ilko etzuan».

V. IRAOLA.

MONTES DE GUIPÚZCOA



Alturas respectivas sobre el nivel del mar en los montes más importantes de ésta Provincia:

	Metros
Achu ¹ (Entre Ataun, Idiazabal y Segura)	962
Adarra ² (Hernani)	674
Aizeleku (Legazpia)	816
Aitzgorri ³ (Cegama)	1546
Aitz-zorrotz (Escoriaza)	1145
Aldaba (Tolosa)	763
Aloña (Oñate)	1297
Aralar ⁴ (Amezqueta, Abalzisketa, Zaldivia y Ataun)	1462